

DURANGO: MARTXOAREN 31KO BONBARDAKETA



1936ko martxoaren 31an Durangon izandako bonbardaketaren inguruko lekukotasunak jasotzen dituen ibilbidea dugu hau.

Gerrako Ahotsak proiektuan bildutako ahozko testigantzetan oinarritua.

Map data: ©2023 Google / Badihardugu Euskara Elkartea



testigantza eta informazio gehiago online mapan



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskera Alkartia

ahotsak.eus
Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazio Nagusia
Giza Eskubideen eta Oraineko Historikoen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos y Memoria Histórica

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1 ANDRAMARIKO ELIZA SUNTSITUTA



Lekukoa: Jose Mari Madariaga

Bonbardaketan hegazkinen erasoak hasi zirenean, sirenak entzun eta ezkutatu egin ziren. Erreka txiki baten ondoan ezkutatu ziren etxeko denak. Etxera bueltatu orduko, ezkutatuta zeuden lekuan bonba bat bota zuten. Egun hartako usaina oraindik ez du ahaztu.

2 ETXE OSTEAN BABESLEKUA EGITEN



Lekukoa: Txomin Aranbarri

Martxoaren 31ko goizeko lehenengo bonbardaketak San Agustineko ospitale inguruan harrapatu zuen Txomin. Andramariko kanpakiak entzun zituen. Astoak baserrira ihes egin zuen. Babeslekua nola egin zuten kontatzen du.

3 ETXEA SUNTSITUTA ETA BI ANAIA ETA AITONA HILDA



Lekukoa: Jose Antonio Olea

Kalebarriko familia-etxe ondoko arotzarekin zegoen bonbardaketa hasi zenean. Honek Landakora eraman zuen eta han milizianoek emakume batzuekin utzi zuten arren, alde egin eta amaren bila joan zen. Etxea suntsituta geratu zen eta bi anaia eta aitona hil ziren.

4 PARROKIAKO KANPANDORREAN EZKUTATUTA



Lekukoa: Enkarna Ormaetxea

Bonbardaketa egunean, Santa Anako kanpandorreko eskaileratan egon zen Enkarna. Jende piloak egon zen egun guztia eskaileratan: batzuk negarrez, beste batzuk errezatzen. Bere etxeak ez zuela txakur txiki bat balio, baina bonbardaketan osorik geratu zela dio Enkarnak.

5 KOMANDANTZIA



Lekukoa: Rosario Mendibe

Martxoaren 31ko bonbardaketako hurrengo egunean, Durangoko komandantziara joan zen janari bila. Bide guztia suntsituta gogoratzen du. Bonbardaketa eguna lurretan pasatu zuen eta nola gogoratzen duen kontatzen du.

6 BABESLEKUA INPROBISATUA BASERRI ATZEAN



Lekukoa: Txomin Aranbarri

Lehenengo bonbardaketan, baserri atzean zegoen zulo batean egin zuten babesleku inprobisatu bat. Kanpakiak entzuten zituztenean bertara joaten ziren.

7 MOMOTIO FABRIKA



Lekukoa: Juanito Gallastegi

Momotio fabrikak zituen zaku batzuekin egin zuten babesleku inprobisatu bat lehenengo bonbardaketaren egunean.

8 HEGAZKINETATIK METRAILADOREAREKIN



Lekukoa: Luzia Ganboa

Martxoak 31ko arratsaldean, hegazkinak joanda zeudela pentsatzean, amarekin lagun baten larreetara joan ziren. Bidean, hegazkinak agertu ziren eta herritarrak metrailadoreekin tirokatzen hasi ziren, inongo kupidarik gabe.

9 KANPOSANTURA HILDAKOAK ERAMATEN



Lekukoa: Luzia Ganboa

Martxoak 31ko goizean hegazkin batzuk agertu ziren. Bonbak botatzen hasiko zirela uste bazuten ere, paperak bota zituzten, durangarrei amore emateko esanez. Gutxira ordea, berriz pasa ziren hegazkinak baina oraingoan bai bonbak bota zituzten. Kanposanturako bidea hartu zuen orduan Luziak eta hildakoak nola eramaten zituzten gogoratzen du.



testigantzak entzun

